

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Guggenheim Bilbao Museoa:
1999/01/01etik 2005/12/31ra
bitarteko arte lanen erosketen
legezkotasunaren analisia eta
Guggenheim Fundazioaren
jardueraren fiskalizazioa, 2005**

**Museo Guggenheim Bilbao:
Análisis de la legalidad de las
adquisiciones de obras de arte
desde 01/01/1999 hasta
31/12/2005 y fiscalización de la
actividad de la Fundación
Guggenheim 2005**



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA.....	5
II. GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOARI BURUZKO IRITZIA	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
II.3 Ondoko gertakariak.....	10
III. BILBOKO ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEAREN MUSEOAREN EDUKITZAILEA, SL: 1999-TIK 2005-ERA BITARTEKO ALDIAN EROSITAKO ARTELANEN LEGEZKOTASUNAREN ANALISIA	11
IV. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KONTROL PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	13
IV.1 Guggenheim Bilbao Museoaren fundazioa	13
IV.2 Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Edukitzailea, SL: Artelanen erosketak.....	14
V. FUNDAZIOAREN URTEKO KONTUAK 2005/12/31-N	16
BOTO PARTIKULARRA	19
I. INTRODUCCIÓN.....	21
II. OPINIÓN FUNDACIÓN DEL MUSEO GUGGENHEIM BILBAO	26
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	26
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	26
II.3 Hechos posteriores	27
III. TENEDORA MUSEO DE ARTE MODERNO Y CONTEMPORÁNEO DE BILBAO, SL: CONCLUSIONES DEL ANÁLISIS DE LA LEGALIDAD DE LAS ADQUISICIONES DE OBRAS DE ARTE DEL PERIODO 1999 A 2005.....	28



IV. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE CONTROL.....	30
IV.1 Fundación del Museo Guggenheim Bilbao	30
IV.2 Tenedora Museo de Arte moderno y Contemporáneo de Bilbao, SL: Adquisiciones de obras de arte	32
V. CUENTAS ANUALES FUNDACIÓN A 31/12/2005.....	33
ANEXOS	
A.1 MUSEO GUGENHEIM BILBAO	35
A.2 FUNDACIÓN.....	37
A.2.1 NATURALEZA Y NORMATIVA APLICABLE A LA FUNDACIÓN.....	37
A.2.2 INGRESOS DE LA ENTIDAD POR LA ACTIVIDAD PROPIA.....	38
A.2.3 VENTAS Y OTROS INGRESOS ORDINARIOS	41
A.2.4 OTROS INGRESOS	42
A.2.5 INGRESOS Y BENEFICIOS DE EJERCICIOS ANTERIORES	42
A.2.6 GASTOS DE PERSONAL	43
A.2.7 SERVICIOS EXTERIORES	44
A.2.8 DOTACIÓN FUNDACIONAL	44
A.2.9 CONTRATACIÓN.....	45
A.2.10 SITUACIÓN FISCAL.....	46
A.3 ADQUISICIONES DE OBRAS DE ARTE.....	47
A.3.1 ADQUISICIONES REALIZADAS	47
A.3.2 FINANCIACIÓN	49
A.3.3 CUENTAS ANUALES TENEDORA	51
ALEGACIONES	53
VOTO PARTICULAR	85

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 14a

Vitoria-Gasteiz, a 14 de junio de 2007



I. SARRERA

Guggenheim Bilbao Museoak erositako artelanen legezkotasunari eta Guggenheim Fundazioaren jardueraren fiskalizazioari buruzko txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki gauzatu da eta 2006ko Lanerako Planean barne hartua dago, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta. Fiskalizazio-gai izan den aldiak Guggenheim Fundazioaren jardueraren fiskalizazioari dagokionez 2005eko ekitaldia besarkatu du eta artelanen erosketen analisiari dagokionez, berriz, 1999tik 2005erako ekitaldiak.

Aurrekariak

1991ko abenduaren 13an, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) eta Solomon R. Guggenheim Foundation-ek (aurrerantzean SRGF), Bilboko Museorako garapen eta programazioen zerbitzu akordioa izenpetu zuten, kudeaketa akordio batez osatua, 1994ko abenduaren 21ean izenpetu zena.

Akordio horietan Museoak eraiki, abian jarri eta funtzionamendurako finkatu zen erakundearen barne-egitura honako hau izan zen:

- Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Inmobiliaria, (aurrerantzean Inmobiliaria), xedea orubearen erosketa eta jabetza eta Museoaren egoitza fisikoaren eraikuntza eta jabetza izanik. 1992ko uztailaren 13an sortu zuten Eusko Jaurlaritzak, BFAk eta Bilboko Udalak.
- Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa (aurrerantzean Fundazioa), Eusko Jaurlaritzak eta BFAk Museoaren kudeaketa, zuzendaritza, mantenua, zaintza eta sustapenerako sortua.
- Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Edukiztailea, SL (aurrerantzean Edukiztailea), artelanak erosteko programa gauzatzeko.

Mamitu dugun lanak, bada, erakunde hauetatik bi izan ditu fiskalizazio-gai: Fundazioa, 2005eko ekitaldian izan zuen jarduerari dagokionez eta Edukiztailea, 1999ko urtarrilaren 1etik 2005eko abenduaren 31ra bitarteko artelanen erosketari dagokionez.

Guggenheim Bilbao Museoaren fundazioa

Fundazioa 1996ko ekainaren 3an sortu zuten Eusko Jaurlaritzak, BFAk eta SRGF-k. Xede soziala Museoak kudeatu, zuzendu, mantendu, zaindu eta sustatzea da, arkitekturaren obra berezi baten esparruan XX. Mendeko artea batu, zaindu eta erakutsiko duena, Euskal Herriaren sustapen ekonomikoaren eta SRGFren nazioarteko orientabidearen kultur-ikur izango dena. Zehazki, honako xede hauek aurreikusitakoak ziren:



- Nazioarte mailan arte moderno garaikideko erakusketa programa bat sortzea, SRGFrenaren pareko kalitate maila izango duena.
- Edukitzailearen bilduma zaindu eta beste museo eta galeria batzuentzat baliabide izatea.
- Bilduma aztertu, interpretatu eta erakustea.
- Bilbok nazioarte mailan duen irudia sendotzea.
- Kultur adierazpen, hitzaldi, argitalpen, liburu eta abar egitea edo sustatzea izango duten bestelako ekintza osagarriak gauzatzea.

Fundazioaren jardueraren fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Ezargarria den arautegia betetzea, bai ondasun eta zerbitzuen kontratazioan, bai langileria kontratatzerakoan ere.
- Kontularitzakoak: Fundazioaren dokumentazio finantzarioak ezargarri diren kontularitzako printzipioekin bat etortzea.

Lana egiteko kanpoko auditoreek egindako 2005eko ekitaldiko urteko kontuen auditoria txostena eskuratu dugu eta txosten horren euskarri diren lan-paperak aztertu, beharrezko irizitako auditoria proba osagarriak gauzatu ditugularik. Ondasun eta zerbitzuen erosketaren lagin batekin Fundazioak erabilitako prozedura berrikusi dugu. Honez gainera, ekitaldiko langileriaren aldaketa aztertu dugu.

Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Edukitzailea, SL:

Edukitzailea 1995eko apirilaren 7an sortu zen, 60 mila euroko hasierako kapital sozialarekin, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk % 50arekin harpidetu eta ordainduak. Xede soziala, legez onartutako zeinahi formularen bitartez, mota orotako obra eta sorpen artistikoak erosi eta ustiatzeaz gain, arte laginak eta erakusketak antolatzea da.

Artelaren erosketaren prozesuan legea bete izanaren analisiak honako hauek besarkatu ditu:

- 1999tik 2005erako aldiaren erositako artelaren zerrenda eskuratzea eta horien kostuaren xehapena, ekitaldi horietan Edukitzailearen ibilgetuko kontuetan erregistratutako kopuruak aztertuz.
- Artelanak hautatzeko eta erosteko prozedura berrikustea.
- Prozedura zuzen aplikatu dela egiaztatzeke 23 erosketen lagina hautatzea, 28.367 mila euroko zenbatekoa egin dutenak (aldi horretako erosketaren guztien % 99).
- Artelanak erosteko kostu osagarrien 3 kontratazio espedienteren analisia, 783 mila euroko zenbatekoa egin dutenak (aldi horretako kostu osagarri guztien % 50), APKLTBk agindutakoari egokitzen zaiola egiaztatzeke.



Jarduera planak eta erosketa prozedurak

1969-1999 lau-urtekoaren inbertsio prozesua amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk hurrengo lau-urtekoan obrak erosteko funts berri bat zuzkitzeko konpromisoa hartu zuten euren gain.

Honi dagokionez, Edukizailearen Administrazio Kontseiluak 2000-2003 aldirako Jarduera plana onetsi zuen 2000ko martxoaren 29an, artelanen erosketan jarraitu beharreko gidalerro eta metodologia finkatuz.

Gidalerroek helburuak hiru ildotan jasotzen dituzte:

- Bilboko Museoaren Bildumako obrek bi baldintza bete behar dituzte, batetik Bilbori nortasun propioa emango dion bilduma osatzea eta, aldi berean, Guggenheim Museoen Bilduma Iraunkorrerako osagarri izatea.
- Denborazko esparruari dagokionez, erosketak gerraoste eta orain aldiaren arteko aldira lerratuko dira.
- Edukiari dagokionez, erosketak ondoko kategoria hauetan sailkatuko dira.
 1. Obra bereziak: Artista berezi baten ibilbideari dagokionez, sintesi eta gailur izaeragatik gailentzen diren lanak.
 2. Maisulanak: Beste artista batzuentzat erreferentzia nabari diren obrak, XX. Mendearen bigarren erdiko artearen historiaren garapenerako giltzarritzat har daitezkeenak.
 3. Aipatutako aldiko pertsona ospetsuen obra multzoak, artista horien sormenezko kalitatearen ikuspegi sakona ematearren.
 4. Bilboko Museoaren espazioetarako berariaz sortutako aginduzko lanak, eraikinak duen berezitasun arkitektonikoa aintzat hartuta.

Jarraitu beharreko metodologiari dagokionez, Jarduera planak hainbat fase aurreikusten ditu:

1. Erosketa-xedeen proiektua mamituko duen lantaldea sortzea, autoreak, obrak eta prezioen magnitudeen hurrenkera adieraziaz eta erosketarako kapituluaren artean eskuragarri dagoen funtsaren banaketa zentzuzkoa eginez. Lantaldea -Nueva York eta Bilboko museoaren ordezkariak modu parekidean osatuko dutena- 2000ko abenduaren 22an eratu zen, museo bakoitzeko 3 ordezkari zituela: Bi museoaren zuzendari nagusiak, Museoko jardueren zuzendaria, Bilboko Museoaren Aholku Batzorde Artistikoaren kide bat, Zuzendariorde eta Kontserbatzaile burua eta Nueva Yorkeko Museoaren jarduera arduraduna.
2. Taldeak berariazko erosketa proposamenak egingo ditu, Administrazio Kontseiluari aurkezteko. Proposamen bakoitzak obraren garrantziari eta bilduman hartzen duen tokiari buruzko txostena izango du lagun, merkatu azterketa eta erosketa babestuko duten adituen proposamen bat edo batzuk.



3. Batzordeak proposamenak aztertuko ditu aurkeztutako dokumentazioarekin batera eta saltzailearekin harremanetan hastea onetsiko du. Berehala emango zaio Fundazioaren Aholku Batzorde Artistikoari aurkeztutako proposamenen berri. Aholku Batzorde Artistikoa Ohorezko Kideek eta Fundazioaren Patronatuko kideek osatzen dute.
4. Behin negoziaketak behar bezala amaitu ondoren, Kontseiluak formalki onetsiko du obren erosketa eta horretarako, obraren jatorriari buruzko dokumentazioa emango zaio, kontserbazio egoerari buruzko txostena eta izenpetu asmo den kontratuaren zirriborroa. Ondoren, Aholku Batzorde Artistikoari jada gauzatutako erosketen berri emango zaio.

2004ko otsailaren 26an 2004-2007 Jarduera Plana onetsi zen, gidalero eta metodologia berbera aurreikusten dituen.

Lantaldeak 2000-2003 aldirako mamitutako erosketa programa Edukizailearen Administrazio Kontseiluak 2001eko martxoaren 8an onetsi zuen. Lau urterako aurreikusitako 30.000 mila euro inguruko funtsa erosi beharreko sei mailatako obren artean banatzen ditu, maila bakoitzerako proposatutako egile zerrenda adieraziaz, nahiz urtero erosketa-lehentasunak berraztertzen diren.

2004tik 2007rako erosketen programa 2004ko urriaren 8an onetsi zen eta 24.000 mila euroko funtsa banatu zen.

Hasiera batean onetsitako programazioak eta egindako jarduerak honako hauek izan dira:

	Mila euro			
	2000-2003		2004-2007	
	Programatua	Gauzatua(*)	Programatua	Gauzatua
Lan artistikoak sakontasunez/enkarguak	4.200	17.142	12.000	-
Maisulanak	18.000	9.682	4.000	-
Euskal/espainiar artea.....	2.100	2.201	2.000	794
Parametro geografikoak zabaltzea	300	-	-	-
Erosketa bateratuak	4.200	-	5.000	-
Gainerakoa (arkitektura, multimedia, e.a.).....	1.200	-	1.000	-
GUZTIRA	30.000	29.025	24.000	794

(*) 2000-2003ko lau urtekoan egindako jarduerak 2004ko otsailaren 26ko Administrazio Kontseiluaren arabera. 2004ko erosketak barne hartzen dituzte, aurreko erosketaren izapideen hasiera izateagatik.

2000-2003 programazio aldiko inbertsioak batik bat berariaz aginduta erositako obretan oinarritu dira, eskultura multzo bat jartzeko Richard Serrari egindako enkargua azpimarratzekoa izanik. Hasiera batean aurreikusi gabeko proiektu hau 2003ko urtarrilean onetsi zen eta Bilduma Iraunkorrerako ildo estrategikiko berri batean dago barne hartua, Museoko lehenengo solairuko aretoetan epe ertain eta luzean irauteko asmoz instalakuntzak aurkeztea izango lukeelarik helburu.



II. GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOARI BURUZKO IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.

1. Fundazioak 418 mila euroko gastuak egin ditu, publizitate eta lehia printzipioak bete gabe eta 486 mila euro egin dituzten gastuak esleitu ditu publizitate printzipioa gorde gabe eta lehiaketa eskaintzen eskaera mugatuko prozedura bitartez mugatuz.
2. Zerbitzu Kontratu baten lizitazioa, 250 mila euro egin zituena (BEZ kanpo) ez zen DOUEn argitara eman, Europako Erkidegoaren zuzentarauak aplikatzeko muga ekonomikoak gainditzen dituela (ikus A.2.9).

Gure iritzira, aurreko ez betetzeak alde batera, Fundazioak zuzentasunez bete du 2005eko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Fundazioak Guggenheim Bilbao Museoa kudeatzen du; ez da, ordea, ez eraikinaren, ez Museoaren bilduma iraunkorraren jabe, Inmobiliaria eta Edukizailearenak direnak. Fundazioak eraikina eta bilduma erabiltzeko kontratuak izenpetu ditu bi erakundeekin; horren ordainetan bilduma eta eraikinaren mantenu kostuaren pareko den kopurua ordaintzen du; ez dago, baina, kostu horren gaineko baloraketarik (ikus A.1).
2. Fundazioak urtero Eusko Jaurlaritzaren eta BFaren diru laguntzak jasotzen ditu gastu arrunta finantzatu ahal izateko. Soberako diru laguntzak ordaintzeko kontu modura erregistratu behar dira eta erakunde emaileei itzuli behar zaizkie. Kopuru hauek Fundazioa zuzkitzeko erabiltzeak, 2002tik 2005erako aldian 866 mila euro egin dituztenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko 1/1997 LDren 53.2 artikuluan eta Bizkaiko Foru Administrazioak emandako Diru laguntzen Araubide Juridiko Orokorra arautzen duen 5/2005 Faren 33.3 artikuluan aurreikusitakoa urratzen du.

Epaitegi honen iritzira, 2. paragrafoan adierazitako akatsak izan lezakeen eragina alde batera, erantsitako Kontuek alderdi esanguratsu guztietan Fundazioaren 2005eko ekitaldiko jarduera ekonomikoa erakusten dute; baita, ondarearen isla leiala eta 2005eko abenduaren 31n finantza egoera.



II.3 ONDOKO GERTAKARIAK

2006ko otsailaren 13an Fundazioak BFari 1997tik 2004ra bitarteko ekitaldiei dagokienez BEZ kontzeptuan jasotako diru-sarrera bidegabekoen itzulera eskatu dio, 6.263 mila euro egin dituen, Europar Batasuneko 2005eko urriaren 6ko Justizia-Auzitegiaren epaia hedaturaz ezarrita, zeinaren indarrez Fundazioa ez baizaion BEZaren hainbanaketa arauari meneratzen jasotzen dituen diru laguntza kontzeptuan. BFAk 2.825 mila euro ordaindu ditu 2002tik 2004ko ekitaldietako itzulera kontzeptuan; horietatik 2.027 mila euro Fundazioak bere jardura diruz laguntzen duten erakundeei eskualdatu die.



III. BILBOKO ARTE MODERNO ETA GARAIKIDEAREN MUSEOAREN EDUKITZAILEA, SL: 1999-TIK 2005-ERA BITARTEKO ALDIAN EROSITAKO ARTELANEN LEGEZKOTASUNAREN ANALISIAREN ONDORIOAK

1. 1999tik 2005era bitarteko aldian, Edukiztaileak 21 artelan erosi ditu 29.873 mila euroko zenbatekoarekin eta 7 lan dohaintza bitartez jaso ditu (ikus A.3.1).

Edukiztaileak ez ditu dohaintzak kontularitzan erregistratzen. Obra hauek ibilgetuan salmenta-balioarekin azaldu behar lukete. Edukiztailearen urteko kontuetan jasotako balorazio arauen arabera, dohaintza hauek ez erregistratu izanaren emaitza ez da adierazgarria, nahiz erregistratu gabeko zenbatekoaren materialtasunari buruzko iritzia ematea bideratuko digun informazio zenbatetsirik ez dugun.

2. Artelanak erosteagatik ibilgetu materiala oker gehitu da 1999tik 2005eko aldian ondoko kontzeptuotan (ikus A.3.1):

	Mila euro
KONTZEPTUA	
Truke aldeak, oker erregistratutako dibisen eragiketengatik.....	3.802
Oker aktibatutako finantza sarrerak.....	(1.762)
Ibilgetuan oker erregistratutako bestelako kontzeptu txikiak.....	146
GUZTIRA	2.186

Truke alde hauek gertatzen dira atzerriko moneta eskuratu zelako ordaintzekoa zen artelana erosi baino askoz lehenago. Aktibatutako kopuruaz gainera, erosketa hauek 2002 eta 2003ko ekitaldietan erregistratutako 2.234 mila euroko galerak eragin dituzte.

3. Edukiztaileak ez du bere artelanen banako baloraketarik merkatuko prezioetan 2005eko abenduaren 31n eta honen bestez, ezin zehatz daiteke data horretan horien kontularitzako zuzenketa.
4. 2000ko ekitaldian Edukiztaileak artelanen erosketa zentzuzkoa egiteko prozedura ezarri zuen, gogoan hartuta artelanen erosketan interes artistikoak egin behar duela buru.

2000tik 2005erako aldiko artelanen erosketako 12 espediente aztertu ondoren, prozedura hau bete egiten dela egiaztatu da; espediente horien ondorioz bildumari 21 lan gehitu zaizkio, guztira 28.320 mila euroko zenbatekoarekin, eta horietatik 5 dohaintza bidez izan dira eta gainerakoak erosketa bidez.

Ez dugu egiaztatzerik izan 1999an 47 mila euroko zenbatekoarekin egindako bi obraren erosketa alde aurretik onetsi eta aztertutako programazio baten ondorio izan denik, ez eta erabili diren irizpide teknikoak ere; gainera, ez dago erasota merkatuaren azterketa egin denik, ez obrak zaintzeko txostenik ere.

5. Gastu osagarrien 3 espediente aztertu ditugu (ikus A.3.1), 783 mila euroko exekuzioa izan dutenak eta honako ez betetze hauek azaleratu dira:

